

# ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan  
[2. zk.] 2021eko urria

## OSASUNA ETA EUSKARA

**Lorea Imirizaldu**  
neurofisiologoari  
elkarrizketa

### LEHEN MAILAKO ARRETA ELEBIDUNERUNTZ

Hizkuntza plangintza  
Osasun Etxeetan

### OSASUNBIDEKO ARRETA GIDA

Osasun zerbitzuetan lehen  
mailako arreta euskaraz  
egiteko jarraibideak

### ARGENTINAN EUSKARA IKASTEN

Nafar Etxeetan  
antolatutako bideobilerak  
bidezko ikastaroak



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuak



euskarabidea



Nafarroako Ospitale Gunearen aireko bista, Iruñean, José Galle Gallego argazkilaria 1932ko martxoaren 1ean hego-mendebaldetik hartua.

Lehen planoan, Nafarroako Ospitale probintzialeko eta Amatasun eta Umezurtz-etxeke eraikinak. Atzealdean, zuhaitzez inguratuta, Barañaindik Iruñerako bidea (egungo Barañain etorbidea).

Vista aérea del Complejo Hospitalario de Navarra en Pamplona, tomada desde el suroeste el 1 de marzo de 1932 por el fotógrafo José Galle Gallego.

En primer término, edificios del Hospital provincial y de la Maternidad y Orfanato de Navarra. Al fondo, rodeado por arbolado, el camino de Barañain a Pamplona (actual avenida de Barañain).

# ENAP

Euskara Nafarroako  
Administrazio Publikoetan  
[2. zk.] 2021eko urria

## Koordinatzailea:

Euskara Administrazio  
Publikoetan  
Garatzeko Zerbitzua  
(Euskarabidea)

## Kolaboratzaileak:

Osasunbidea, Kanpo  
Ekintzarako zuzendaritza,  
Vianako Printzea Erakundea,  
Nafarroako Parlamentuko  
prentsa zerbitzua, Aranguren  
Ibarreko euskara zerbitzua,  
Nafarroako Unibertsitate  
Publikoa, Elhuyar Aholkularitza.

**Diseinua:** cobo-munarriz.com

**Irudiak:** Oscar Munarriz  
eta Freepik

**Argazkiak:** Euskarabidea

**ENAP** aldizkarian  
argitaratutako artikulua  
berridatz daitezke bai osorik,  
bai zatika, baina artikulua  
nondik atera diren aipatu  
behar da beti.

**ENAP** aldizkariak ez ditu  
derrigor bere egiten artikulua  
eta kolaborazioetan agertzen  
diren iritziak.

**ISSN:** 2697-0988

**Egilea:** Euskarabidea-  
Euskararen Nafar Institutua  
Paulino Caballero 13  
31002 Iruña  
Tel. 848 42 60 54  
[www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)

## AURKIBIDEA

- 4 **Elkarrizketa:** Lorea Imirizaldu neurofisiologoa.
- 7 **Euskarabideatik:** Euskara ikastaroa Argentinan.
- 8 **Erreportajea:** Hizkuntza plangintza Osasun Etxeetan.
- 10 **Gobernutik:** Osasunbideko arreta euskaraz egiteko gida. Fontes aldizkariaren 50. urteurrena.
- 12 **Parlamentutik:** Minority Safepack ekimena.
- 13 **Udaletatik:** Toponimia ipuinen bidez ezagutuz.
- 14 **Hiztegi terminologikoa:** Osasun zerbitzuak.
- 15 **Ohar historikoa:** Zuzenbidearen historia, nazioartetik Nafarroara.

\* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena [euskarabidea@navarra.es](mailto:euskarabidea@navarra.es) helbidera.

# Lorea Imirizaldu

*Osasunbidean dihardu neurofisiologo gisa, eta osasun arloan euskara sustatzeko elkarte bateko kidea da.*



**Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Planak garatzen ari garen honetan, Osasun Departamentua hobeto ezagutzeko zuregana gerturatu gara Lorea, zu neurofisiologo klinikoa zara, ze lan mota egiten duzu?**

Orokorrean, arazo neurologikoak dituzten gaixoei, proba bereziak egiten dizkiegu, beren gaixotasunaren diagnosian, pronostikoan eta tratamenduan laguntzeko. Horretarako, arazo jakinari egokitutako estimulu mota ematen duen makina baten laguntzarekin eta gorputzeko atal jakinetan jarritako elektrodo batzuekin, ikusi dezakegu nerbio sistemak ondo funtzionatzen duen ala ez.

Adibidez, norbaiti eskuak eta behatzak txingurritzen bazaizkio, Karpo Tunelaren Sindromearen susmoa izan dezakegu. Hori konfirmatzeko edo ezeztatzeko, eskumuturreko nerbioak nola funtzionatzen duten begiratuko genuke. Gure makinarekin korronte elektriko txiki bat bidaltzen zaio nerbioari eta haren erantzun maila jasota, arazoren bat dagoen ala ez jakin dezakegu. Norbaitek ikusmen arazo zehatz batzuk baditu, argi estimulu ezberdinak erabiliaz, nerbio optikoa eta erretinak nola funtzionatzen duten aztertzen dugu.

Eta horrela, nerbio sistemaren atal asko (nerbioak, giharrak, bizkar-muina, garuna, entzumena, ekilibrioa, etab.) behatu ahal ditugu. Gure probak arraroak ematen badute ere, orokorrean oso jasagarriak dira. Haur txikiei ere egiten zaizkie eta ondo eramaten dituzte.

**Eta zure lanean euskara erabiltzeko aukera al duzu pazienteekin edo lankideekin?**

Gure zerbitzuan zorte handia dugu eta hainbat lankide euskaldunak gara (zeladorea, administrariak, erizainen bat eta hainbat mediku). Batzuk ikasten ari direnak eta besteak euskaldun zaharrak. Pazienteei dagokienez, denetarik dugu. Euskaldunak direla konturatzen bagara edo esaten badigute,

## Osasun zerbitzua euskaraz emateko aukerak

euskaraz mintzatzeko aukera ez dugu galtzen!

**Zaila suertatzen al da medikuntzako hizkuntza teknikoa euskaraz erabiltzea?**

Berez zaila izan daitekeela ematen badu ere, hitz gehienak greko-erromatarrek direnez, antzekoak dira euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez. Nire kasuan, karrera euskaraz egin nuenez, zailagoa egin beharko litzaidake hizkuntza teknikoa gaztelaniaz erabiltzea... Dena den, pazienteekin komunikatzeko orduan, ez dugu hizkuntza teknikoa erabili nahi eta beraiek ulertu dezaketen modu batean egiten dugu.

**Identifikatzaileak erabiltzen al dituzue herritarrek euskaldunak zaretela jakin dezaten?**

Bai noski. Gure zeladoreak, mahai gainean "euskara ikasten ari naiz" dion karteltxoak dauka. Eta denok, "ahobizi", "belarriprest" edo "euskaraz" jartzen dituzten txapak ditugu. Horretaz gain, itxarote-gelako eta kontsultetako kartel guztiak ele bitan jarri ditugu.

**Osasunbideak herritarrekiko arreta zuzena dauka oro har,**

**zer nolako iritzia duzu ematen duzuen euskarazko arretaren inguruan?**

Nafarroan, euskara ez dago inolaz ere gaztelaniarekin parekidea den egoera batean, eta administrazioan ere, hori ikusten da. Gure lotsak albo batera utzi eta ausartak izan beharko ginateke euskaraz hitz egiteko saiakeran, ahal dugun neurrian eta egoeratan, osasuna euskaraz artatzea arrunta bihurtzeraino.

**Arlo guztietan bezala hutsuneak egonen dira eta baita ongi egiten diren gauzak ere, zein dira Osasunbideak euskararen esparruan dituen indarguneak?**

Azken urteetan, euskararen erabilera "normalizatuagoa" dagoela dirudi, gizarteko arlo ezberdinetan. Euskaraz ez dakitenez, euskara entzuteran ohitzen eta hau onartzen ari direla dirudi. Hori Osasunbidean ere nabaria da. Gainera, gaur egun, idatzizko informazio gehiena ele bitan daukagu. Kartel eta ohar asko bi hizkuntzetan ikusten dira. Eta komunikazioaren lehenengo pausu hori honela izatea oso garrantzitsua iruditzen zait. Ahozko komunikazioak bide bera jarraituko balu...



Euskaragatik ez bazenidan galdetu, Osasunbidearen indargune garrantzitsuenak giza baliabideak direla esango nizuke eta bere langileei esker daukagula osasun arreta bikain hau!

**Eta ahulguneei dagokienez, non behar da bultzada gehien?**

Osasunbidera jo behar dugun guztiok aukera berdina izan dezagun, gure ama hizkuntzan artatuak izan beharko ginateke. Osasunaren inguruan, gauzak ondo azaltzeko aukera izan behar dugu, gure gaixotasuna ondo bideratua izan dadin. Osasunari buruz hitz egiten dugunean arduratuak gaude eta batzuetan beldurtuak ere bai. Azalpen argiak, goxoak eta ulerkorrak entzuten baditugu, errazagoa da beti. Ama hizkuntzan egin ahal izatea eskubidea izateaz gain, funtsezkoa beharko luke gaixoarekiko arreta osoa izateko. Horregatik, Osasunbideko langile gehienek euskaraz ez jakitea ahulgune nagusia dela uste dut.

**Euskara elkarte bat ere baduzue, zer egiten duzue bertan?**

Gure elkarteak, Osasunbideko Euskaldunentzako Erakundea, osasun arloan euskara sustatzeko sortu zen. Horretarako, hainbat ekintza ditugu euskal lurraldeetan: saio klinikoak osasun etxe eta ospitaleetan, osasunaren inguruan urtero egiten den biltzarra edo kongresua, bertso-saio kliniko lehiaketak, etab. Datorren urtean adibidez, Nafarroari dagokio biltzarraren txanda. Horretarako, osasun profesional ezberdinen



## ELKARRIZKETA



taldea sortu da eta jo ta fuego dabilta Covid-aren inguruan izango den biltzarra prestatzen. Hori, 2022ko martxoaren 25ean eta 26an izanen da, Atarrabiako Kultur Etxean.

**Pandemiak gure egunerokoa hankaz gora jarri zuen, zer moduz daramazu?**

Denoi bezala, astuna eta luzea egiten ari zait egoera hau. Osasun langileok orokorrean besteek baino gehiago zaindu behar dugu gure burua, adibidez pazienteei birusa inolaz ere ez pasatzeko. Beraz, gure egunerokotasun berri honetan, etxetik lanera eta lanetik etxera gabiltza... astelehena eta larunbata ezberdintzeko erreferentziak galduta ia!

Bidean galtzen ari garen jendeagatik atsekabetuak gaude, lan zamagatik nekatuak, deskonexio faltagatik konzentrazio

arazoekin, zenbait pertsonen jarreragatik (arrisku egoeran jartzen direnak/gaituztenak) desmotibatuak, etab. Baina gure lana maite dugulako eta jendeak ematen dizkigun animo eta esker onengatik, lanean jarraituko dugu, ahal dugun hobekien eta aurpegiari irribarre batekin!

**Zure lan eguna asko aldatu du Covid-ak?**

Egia esan, bai. Hasteko, musukoa. Gure pazienteen aurpegia eta beraiek gurea ezin ikusteak, gure arteko komunikazioa zaildu du erabat: gaixotasunaren eraginez dugun aurpegiko espresioa galdu dugu; entzumen arazoak zituztenak eta ezpainak irakurrita moldatzen zirenekin komunikazio arazo handiagoak ditugu; haurrekin lan egiteko behar den aurpegiko keinuak ezin dira erabili; etab.

Gure lantokian beti egon dira garbiketa neurriak, baina oraingo honetan, oraindik zorrotzagoak dira eta egunean zehar hainbat alditan egitea, neketsua da. Aireztapen neurriak Nafarroan ditugun egun hotzetan ere gogorrak izan dira.

Guzti horretaz gain, hainbat frogatarako PCR-ak behar ditugunez, orain askoz izapide gehiago dauzkagu.

Baina guzti hau iragankorra izatea espero dugu. Eta laster, gure lehenagoko normaltasunaren antzeko egoera batera iritsiko garela, aurrera jarraituko dugu! ■

*En esta entrevista, la Neurofisióloga Clínica de Osasunbidea Lorea Imirizaldu explica cómo realiza la atención bilingüe a sus pacientes, así como los efectos de la pandemia en su día a día.*

## Euskarabideak euskara ikasteko ikastaroa antolatu du **Argentinako Nafar Etxeetako** kideentzat

*Ikastaroa bideokonferentzia bidez egin da, eta Argentinako eta Uruguako hainbat tokitako 19 pertsonek eman dute izena.*

Argentinako Nafar Etxeen eskaerari erantzunez, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak euskara ikastaro telematikoa antolatu du lehen aldiz, Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Ataleko irakasle batek antolatua. Ikastaroan Argentinan eta Uruguain bizi diren 19 pertsonek parte hartu dute. Gehien gehienak gazteak izan dira, unibertsitate ikasketak egiten ari direnak, baina tartean izan dira 50 urte inguruko batzuk eta baita jubilatuak ere.

Ikasleak profil eta jatorri ezberdinetakoak izan dira. Gehienak nafarren ondorengoak, baina tartean baziren italiar jatorriko hainbat ere. Dena den, guztiek dute harremana Argentinan dauden 4 Nafar Etxeren batekin. Italiar jatorria duten ikasleen kasuan esaterako, ez dute Nafarroako ahaiderik, baina Nafar Etxetik gertu bizi direnez, dantza klaseetara joaten hasi ziren eta egun bertako dantza-taldeko kide dira; hortik sortu zaie gerora, euskara ikasteko grina. Euskara ikasteaz gain, Nafarroako kultura, geografia eta ohiturak ezagutzeko ere badute interesa.

Matrikulatutako ikasleek ez zuten alde aurreko euskarazko jakintzarik, eta, beraz, A1 maila esleitu zaie, eta arreta berezia jarri zaie ahozko komunikazioari, talde txikitik mintzatzeko saioen bidez. Nongoak diren, zenbat urte dituzten eta beraien gustuak zein diren esaten ikasteaz gain, aditzaren oinarriko ezaugarriak ere ikasi dituzte.

Euskarabidetik bere prestakuntza ikastaroetako ohiko programazio didaktikoa erabili den arren, behar diren egokitzapenak egin behar izan dira hizkuntza eta kultura-arrailduren ondoriozko erronkak gainditzeko. Ordutegien koordinazioa



Buenos Aires



Mendoza



Rosario

izan da oztopo nagusia, Nafarroaren eta Argentinaren artean 4 orduko aldea baitago. Horrez gain, ikastaroa urtarriletik ekainera bitartean izan da eta Argentinan urtarrilean udako oporrak izaten dituztenez, horrek ikasturtearen eritmoan eragina izan du.

Irakasleari galdetu diogu zer alde nabaritu duen Euskarabidean aurrez aurre izan ohi dituen ikasleen eta Argentinako ikasleen artean eta ondorengoak nabarmendu dizkigu. Batetik, funtzionamendua erabat ezberdina dela; argentinarrak berezko duten hizkera eta izaera, eta bestetik, euskara eta euskal kultura biziki maite dituztela; idealizatzeraino. Motibazio praktikorik ez dute ikasle hauek, ez dute euskara ez eguneroko bizitzarako, ez lanerako erabiltzen. Nafarroarekiko nolabaiteko lotura sentimendua eta bertako kulturaren murgiltzea da euskara ikasteko beraien motibazioa. ■

Euskarabidea ha organizado por primera vez un curso de euskera de manera telemática dirigida a miembros de los **Centros Navarros de Argentina**, dando respuesta a su solicitud, y donde han participado 19 personas.




# Hizkuntza plangintza Osasun Etxeetan

*Osasun Departamentuaren lan ildoak lehen mailako arretan zerbitzu elebiduna eskaintzeko.*

Oinarrizko Osasun Laguntza da Osasunbidea eratzen duen asistentzia mailako bat, lehen mailako osasun arreta publikoa eskaintzen duena. Harekin batera Osasun Mentala, Sexu eta Ugalketa Osasuna eta Arreta Espezializatua ditugu. Herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza kudeatzen duten Osasun Etxeak ezinbesteko erreferentzia dira hurbiltasunari, eskuragarritasunari,

etengabeko asistentziari eta osasun profesionalen balioaniztasunari esker.

Osasun Etxeak Nafarroako geografian barna sakabanaturik daude. Osotara 59 dira, eta hainbat tokitan, kokapen edo ezaugarri geografikoengatik, osasun etxe hauei loturiko herri kontsultategietan eskaintzen dituzte beren zerbitzuak (han-hemenka diren larrialdietako zerbitzuak ahaztu gabe).




Nafarroako hiru osasun eremuak eta oinarrizko osasun zonaldeak.

Oinarrizko Osasun Laguntzarako sare hau antolatzeko Nafarroa hiru osasun eremutan dago banatua (Iruña, Lizarra eta Tuter), eta eremu bakoitzean oinarrizko osasun zonaldeak daude, osasun etxeak zonalde hauen erreferenteak direlarik.

Osasun Departamentuaren hizkuntza plangintzan Osasun Etxeek lehen mailako dute herritarrekiko duten komunikazio zuzenagatik. Bereziki eremu euskaldunetan kokaturiko 12 zentroetan osasun zerbitzu elebiduna eskaintzea da helburu nagusietako bat. Hori lortzeko hainbat lan egin dira: egoeraren diagnostikoa egitea, hizkuntzaren erabilera ezagutzea edota profesionalen hizkuntza-gaitasunak eta beharrak atzematea.

Horrekin batera, Doneztebeko eta Lesakako Osasun Etxeak aukeratu dira modu pilotuan hizkuntza plangintzaren helburuak Elhuyar Aholkularitzaren lankidetzarekin batera garatzeko. Esperientzia piloto hauengandik ikasitakoarekin, aukera egonen da eremu euskalduneko gainontzeko zentroetara irizpideak eta praktikak zabaltzeko, herritarren eta pazienteen hizkuntza eskubideak bermatzeko helburuarekin.



Hauetako jorritako diren lan ildoak:

- \* Osasun Etxean erabiltzen den komunikazio idatziaren analisia, eta testu elebidunak erabiltzeko neurriak ezarri.
- \* Pazienteei ahozko arreta elebiduna bermatzeko pausoak ematea, langileentzako prestakuntza eta trebakuntza eskainiz edo beharrezko lanpostuetan euskarazko hizkuntza eskakizuna ezarri.
- \* Zentroaren hizkuntza paisaiaren diagnostika eta elebitasuna bermatzeko irizpideak adostea.
- \* Paziente eta langileekin informazio trukeak egitea arreta integral elebidunerunzko bidean aurki daitezkeen oztopoak detektatzeko eta hobetzeko.

En este reportaje se muestra la organización de la Atención Primaria de Navarra y el desarrollo de la planificación lingüística en los Centros de Salud

# Osasunbidean arreta euskaraz egiteko gida

*Nafarroako Gobernuak argitaratutako liburuxka da, lehen mailako arretako langileei zuzendua*

Pazienteak euskaraz artatzen laguntzea helburu duen arreta gida zabaldu da Osasunbideko lehen mailako arretako langileen artean, ohiko elkarrizketetatik hasi eta medikuntzako hiztegi terminologikoa ere barne duena.

Osasun Departamentuko Hizkuntza Planean esaten den bezala, herritarrei zerbitzu elebiduna eskaintzea da helburu nagusietako bat, eta horretarako langileei hizkuntza tresnak eta irizpideak erraztu behar zaizkie, euskarazko prestakuntza eskaintzeaz gain.

Departamentu honen baitan Osasunbidea erakunde autonomoa dago, eta bere egiturari jarraituz lehen mailako arretako profesionalak dira herritarrak artatzen dituztenak hein handi batean. Horregatik Osasunbideak, Euskarabidea eta Elhuyar Aholkularitzarekin lankidetzan, lehen mailako arretari zuzendutako gida prestatu du, artatze elebiduna erraztu ahal izateko. ■

Osasunbidea ha elaborado una **guía** dirigida a las/os profesionales de Atención Primaria para facilitarles el poder realizar una atención bilingüe a la ciudadanía.



2.5. Osasun Tartxela

**Erabiltzaileak osasun txartela eskatu edo berritu nahi du**  
Haurrarentzat txartel berria egin nahi dut. Zer egin behar dut?  
Poltsa lapurtu didate eta bertan neukan Osasunbideako txartela. Berrita egin nahi nuke.  
Lehenago atzeritarren identifikazio zenbakia nuen, eta orain nortasun agiria dudanez, txartela aldatu nahi dut.

Osasun txartelari buruzko argibideak

Osasun txartelari buruzko argibideak  
Osasun txartelari buruzko argibideak  
Lapurtu salatu erroz zent berri bid

2.5. Tarjeta Sanitaria

**EU/ta usuario/a quiere solicitar o renovar la tarjeta sanitaria**  
Quiero hacer una tarjeta nueva para el/la niño/a. ¿Qué tengo que hacer?  
Me han robado el bolso y tenía la tarjeta sanitaria dentro. Quisiera hacer una nueva.  
Antes tenía el número de identificación de extranjero y ahora que tengo el DNI, quiero cambiar de tarjeta.

Instrucciones sobre la tarjeta sanitaria

Para hacer la nueva tarjeta sanitaria es necesario aportar empadronamiento, libro de familia, certificado de Seguridad Social.

2.6. Bertaritze-agiriak

**Erabiltzaileak bertaritze-agiria nahi du**  
Bertaritze-agiria behar dut, lanerako. Hemen egingo didazue?  
Bertaritze-agiria kontsultan eskatu behar dizua.  
Bertaritze-agiria egiteko, mesedez?

Datuk eskatzeko


Zure izen-abizenak, mesedez?  
NANA utziko didazu, mesedez?  
Zein medikurekin egon zara?  
Nor da zure medikua?

2.6. Certificado de asistencia

**EU/ta usuario/a quiere el certificado de asistencia**  
Necesito el certificado de asistencia para el trabajo. ¿Me lo harían aquí?  
El certificado de asistencia lo tienes que pedir en consulta.  
¿Para hacer el certificado de asistencia, por favor?

Para solicitar los datos

Tu nombre y apellidos  
3. ONARRIZKO HITZEGIA • DICCIONARIO BÁSICO



# Fontes aldizkariaren 50. urteurrena

*Nafarroako Gobernuko euskal hizkuntzari buruzko ikerketen aldizkari zientifikoaren mende erdia ospatzeko argitalpenaren aurkezpena*

Vianako Printzea Erakundeak Fontes Linguae Vasconum aldizkaria 1968. urtean argitaratu zuen lehen aldiz (eta 1969 urtean aldizkari zientifiko bezala), euskara filologia eta linguistikaren arlo zientifikoetatik ikertzeko helburuarekin. Bertan euskal hizkuntzaren gaineko ikerketa berriak (studia) eta hizkuntzaren antzinako testuak (documenta) aurkitu ditzakegu, eta baita euskal linguistikaren beste adar batzuk ere. Aldizkariak nazioarteko estandar akademikoak betetzen ditu eta herrialde ezberdinetako ikertzaileek parte hartzen dute. 50 urtetan zehar Fontes-en 130 ale argitaratu dira seihilean behin eta guztiak eskura daude Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webgunean, Open Access printzipioari jarraituz.

Mende erdiaren ospakizunen ostean Nafarroako Gobernuak "Fontes Linguae Vasconum 50 urte – Ekarpak berriak euskararen ikerketari" liburu monografikoa argitaratu du, izandako euskarare ikerketari buruzko kongresu internazionalako txostenak biltzen dituena. Esparru nazionalaren baitan aipagarria da zortzi unibertsitatetako ikertzaileen partaidetza, zeinen artean aurkitzen diren Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, Gaztela-Mantxako Unibertsitatea, Errioxako Unibertsitatea eta Bartzelonako Unibertsitatea. Halaber kolaboratzen dute UNILCO-eremu nomadako kideek eta Soziolinguistika Klusterrak, hala nola

# Fontes Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpak berriak euskararen ikerketari  
Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia  
Dorota Krajewska  
Enko Zuloaga  
Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra

Euskaltzaindiako ikerlari independentee eta euskaltzain numerarioek.

Eremu internazionalan, Université Lumière (Lyon 2), Université de Pau et des Pays de l'Adour, Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS), IKER (Centre de recherche sur la langue et les textes basques), Université Bordeaux-Montaigne, University of Hawai'i Mānoa eta Sapporo University izendatutako ikertzaileen kolaborazioarekin kontatu da. ■

El Gobierno de Navarra ha presentado un monográfico de **Fontes Linguae Vasconum** conmemorativo de su 50 aniversario, donde se incluyen artículos científicos sobre el euskera de investigadores locales e internacionales.

# MINORITY SAFEPACK EKIMENA

Nafarroako Parlamentuak Europar Herritarren Ekimen honi babesa erakutsi dio



Unai Hualde



Europar Batasuneko zazpi estatutako milioi bat herritarrek, gutxienez, sinatutako ekimen bat aurkezten denean, Europako Batzordeak honi bide eman behar dio. Horrela iritsi da **Minority SafePack** proposamena Europako Parlamentura (1.128.422 atxikimendu 11 estatutan), non gehiengo onartua izan den.

Honen helburu nagusia da Europar Batasunak ardura hartu dezala kultura eta hizkuntza aniztasunaren eragile nagusia bihurtzeko Europa osoan.

Minority SafePack ekimenaren baitan hurrengo lege-proposamenak daude:

1. EBren Gomendioa, kultura eta hizkuntza aniztasunaren babes eta sustapenerako.
2. Finantziazio programak hizkuntza komunitate gutxituentzat.
3. Hizkuntza Aniztasunaren Zentro baten sorrera.
4. EBren eskualde garapenerako funtsen helburuek gutxiengo nazionalen babesa eta kultura eta hizkuntza aniztasunaren sustapena barne har dezatela.
5. Gutxiengoek gure gizarteari eta Europari erantzen dioten balioari buruzko ikerketa.
6. Estaturik gabeko gutxiengoentzako berdintasunera hurbiltzea, ijito herriaren adibidea.
7. Europako copyright lege bateratu bat, zerbitzuak eta emanaldiak norberaren ama-hizkuntzan eskuratu ahal izateko.
8. Ikus-entzunezko edukiak eskualde gutxituetan eskaintzeko eta jasotzeko askatasuna.
9. Eskualdeak (estatuak) gutxiengo kultura, bitarteko eta herentzia kulturala kontserbatzetik salbustea debekatzea.

Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak, Galizia, Valentzia, Balearrak eta Euskadiko Parlamentuko Lehendakariarekin batera eskutitza sinatu du Minority SafePack-i babesa emanaz eta gizarte demokratikoak eraikitzeko hizkuntzen balioa azpimarratuz. ■

El Parlamento de Navarra ha mostrado su apoyo a la **Iniciativa Ciudadana Europea Minority SafePack**, con más de un millón de firmas en 11 estados, con el objetivo de proponer medidas legales para preservar y fomentar la diversidad lingüística y cultural de Europa

# Toponimia ipuinen bidez ezagutuz


Aranguren Ibarreko Udaleko Euskara Zerbitzuak inguruko toponimoen jatorri euskaldunak testu literarioen bidez ezagutzeko ekimena abian jarri du.

ARANIPUINAK izena duen egitasmo honetan Aranguren Ibarreko herri ezberdinetan barna, Mutiloa, Taxoare edo Labio besteak beste, ibilbide gidatuak sortu dira euskarazko jatorria duten leku izenak ezagutzeko. Toponimo hauen gainean interesa pizteko, hauen arteko lotura eginez sortutako ipuinak ditugu eskura, bideoan grabatuak eta hainbat irizpide eta jarduerarekin osaturik.

Toponimo bat entitate geografiko bat da, bere zentzu zabalean (hau da, ez da herrien izenetara mugatzen). Ibilbide hauetan Oianandia basoa, Sadar erreka edo Iturrama iturria bezalako leku izenak aurkitu ditzakegu.



Nafarroako udalerrri gehienetan aurkitu dezakegun bezala, toponimo zaharrek euskarazko jatorria dute, baina denbora pasatzearekin batera hauen hasierako esanahia zenbait kasutan galdu edo aldatu egin da. Honelako ekimenek gure kultur ondare ez-material diren leku izen berezi hauek ezagutarazi eta zaintzea dute helburu. ■



El Servicio de Euskera de Aranguren ha creado **recorridos literarios** por el valle que incluyen topónimos locales con origen en euskera.

## HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

## OSASUN ZERBITZUAK

|                                    |   |                              |                             |
|------------------------------------|---|------------------------------|-----------------------------|
| Área de Atención al Paciente ..... | Pazienteen(tzako) Arreta-Zerbitzua/<br>Pazienteen(tzako) Atentzio-Zerbitzua | Oncología .....              | Onkologia                   |
| Asistencia a domicilio .....       | Etxeko Asistentzia  | Operación .....              | Ebakuntza                   |
| Atención Especializada.....        | Arreta Espezializatua   | Optometrista.....            | Optometrista                |
| Atención Primaria .....            | Oinarrizko Osasun Laguntza /<br>Lehen mailako arreta                        | Otorrinolaringología .....   | Otorrinolaringologia        |
| Atención Urgente .....             | Arreta Urgentea   | Parto .....                  | Erditze                     |
| Botiquín.....                      | Botikina  | Pediatría .....              | Pediatria                   |
| Cardiología.....                   | Kardiologia   | Psicólogo.....               | Psikologo                   |
| Celador/a .....                    | Zeladore  | Psiquiatra.....              | Psikiatra                   |
| Centro se Salud.....               | Osasun Etxea  | Psiquiatría de Adultos.....  | Helduen Psikiatria          |
| Circuito Respiratorio .....        | Arnas-Zirkuitua   | Psiquiatría Infanti.....     | Haur Eta Gazteen Psikiatria |
| Cirugía.....                       | Kirurgia  | Radiología .....             | Erradiologia                |
| Cirujano/a.....                    | Kirurgialari  | Recepción .....              | Harrera                     |
| Complejo Hospitalario.....         | Ospitaleguna  | Salud Bucodental .....       | Aho-Hortzetako Osasuna      |
| Cura .....                         | Sendaketa   | Salud Mental.....            | Osasun Mentala              |
| Dermatología.....                  | Dermatologia  | Salud Sexual.....            | Sexu eta Ugalketa Osasuna   |
| Endocrinología.....                | Endokrinologia  | Terapia Ocupacional.....     | Terapia Okupazionala        |
| Enfermería.....                    | Erizaintza (Lanbidea);<br>Erizaindegia (Lekua)                              | Tocoginecología .....        | Tokoginekologia             |
| Enfermero/a .....                  | Erizain   | Toxicomanías.....            | Toxikomaniak                |
| Ginecología.....                   | Ginekologia   | Trastornos Alimentarios..... | Jatearen Nahasmenduak       |
| Hospital.....                      | Ospitalea   | Traumatología.....           | Traumatologia               |
| Matrona.....                       | Emagin  | Urgencias.....               | Larrialdiak                 |
| Medicina General.....              | Medikuntza Orokorra   | Urgencias.....               | Ospitalez                   |
| Médico de Familia.....             | Familia-Mediku  | Extrahospitalarias .....     | Kanpoko Larrialdiak         |
| Odontología .....                  | Odontologia   | Urología.....                | Urologia                    |
| Oftalmología.....                  | Oftalmologia  |                              |                             |



## OHAR HISTORIKOA

Zuzenbidearen Historia:  
Nazioartetik Nafarroara

**Roldán Jimeno Aranguren** eta **Amaia Alvarez Berastegik** *Zuzenbidearen Historia* izeneko lana argitaratu dute; Nafarroako zuzenbidearen historiari buruzko eskuliburua. Biak Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Zuzenbide Saileko irakasleak dira.

Eskuliburua "Liburu Akademikoak Euskaraz" izeneko bildumako lehen lana da; euskaraz idatzitako testu teknikoaren bilduma. Proiektuaren helburua irakasteko eta ikasteko kalitate oneko materiala sortzea da. Horrez gain, Unibertsitatean euskarak presentzia handiagoa izatea lortu nahi da eta uste dute baliagarria izango dela terminologia finkatzeko eta estilo zientifikoa garatzeko. Hemendik aurrera diziplina zientifiko eta jakintza-arlo ugaritako lanak argitaratu nahi dituzte.

Liburu honetan Mendebaldeko sistema juridikoen erro historikoak azaltzen dira eta epe bakoitzaren bilakaeran Nafarroako zuzenbideari buruzko analisisa ere txertatzen da.

Gaur egungo sistema juridikoek bi oinarri historiko nagusi dituzte: zuzenbide erromatarra eta zuzenbide kanonikoa. Bi horien arteko loturak sortutako lus Commune izan zen Erdi Arotik Erregimen Zaharraren bukaera arte Europar garatu zen zuzenbidearen ardatza. lus Commune zabaldu baino lehen, hala ere, Nafarroak bere zuzenbide propioa zuen, hasiera batean ohituraren eta tokiko foruen bidez (lehen Lizarrakoa izan zen, XI. mendekoa) eta ondoren Foru Orokorren bidez garatu zena.

1234. urtean, Teobaldo I.a errege bihurtu zenean idatziz jaso gabe zeuden Foruak zin eginarazi zizkieten eta handik lau urtera, erregeak estatutu juridikoa idatziz jasotzeko agindu zuen. Antzianako Foru haren jatorrizko alea iritsi ez bazaigu ere, haren artikulua Foru Orokorrean jaso ziren. Hau ez zuten inoiz ofizialki aldarrikatu, baina Nafarroako zuzenbidearen foru tradizioa jasotzen zuen eta denborak aurrera egin ahala, erresumako zuzenbide orokorraren funtzioa hartu zuen.

Aro Modernoaren hasierarekin batera (XVI. mendean), hau da, Gaztelak Nafarroa konkistatzearekin batera, Nafarroak lus Communeren harrera ofiziala egin zuen; Gaztelako zuzenbidera jo beharrik ez izateko.

Nafarroako erreinuaren desagertzea (lege hitzartuarekin finkatu zena, 1841ean), Erregimen Zaharraren desagertzearekin batera iritsi zen. Prozesu luze eta konplexuak izan ziren, baina Frantziako Iraultzaren ondoren, harilkatuta gertatu ziren fenomeno historikoak ditugu: Erregimen Zaharraren abolizioa, Nafarroako Erreinuaren desagertzea eta lus Commune sistema juridikoaren amaiera. XIX. mendetik aurrera legeen mundua aldatu egin zen, konstituzionalismoa eta kodifikazioa zabaltearekin batera. Mundua eraldatu zuen prozesu horrek eragin nabarmena izan zuen Nafarroan, nahiz eta bere foruetan aitortzen diren eskumen batzuk gaur egun arte mantendu diren.

Foru horiek mantendu izana estuki lotuta dago Ondorengotza Gerran Nafarroako erresumak borboi erregeen alde egin izanarekin. Izan ere, nafarrak ez ziren erregearen aurka matxinatu eta ondorioz, beren ohiko gobernu sistema mantentzen utzi zieten. Hots, gor-teak, aldundia eta udalak, zergen eta armadaren salbuespenak, justizia, merkataritza eta aduana libreak, eta foru pasea konterbatu zituzten. ■

La UPNA ha inciado el ciclo de **Libros Académicos en Euskera** con un ejemplar que analiza la historia del derecho y el papel de Navarra en el contexto del derecho internacional.





[www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)

